



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

EMAKUNDE

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2019ko deialdia . 2
2. Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea 4
3. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko 6
4. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko diru-laguntzak 8
5. Diru-laguntzak 2019. urtean emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio-eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat 10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2019ko deialdia

2.- Araua

2018ko abenduaren 3ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2019. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

Esleipena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2019ko ekitaldian, ondo definitutako hiru beka-mota mantentzen dira oraindik, hiru motatako ikerlanak egiteko diseinatutakoak. Ikerlanaren xedea honako hau izan da beka-mota bakoitzean: 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa lagunduko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea. 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko diskriminazioa jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboetan; bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzeari eta segurtasunari dagokionez. 3. mota: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta emakumeen lidergoa eta ahalduak politiko, ekonomiko eta soziala erraztuko duten eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen lagunduko duten ekimenak eta estrategiak bilatzea.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterketa- eta ikerketa-arlo horiek dinamizatu nahi dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezkeen ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldian, hamazortzi (18) eskaera jaso ziren 1. motako beka lortzeko. Horietatik, onuradun bat (1) izendatu zen, hogeita bat (21) ordezkari, eta sei (6) eskaera atzera bota ziren arrazoi berarengatik (deialdian eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzea, pertsona fisikoa ez izatea). Beka onuradunaren gaia hau da: "Participación de mujeres racializadas en movimientos migrantes y feministas en Euskadi: narrativas, estrategias y resistencias". 2. motako bekan, hamazazpi (17) eskaera jaso ziren, eta horietatik, onuradun bat (1) eta hamar (10) ordezkari izendatu ziren, eta sei (6) eskaera atzera bota ziren (deialdian eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzea, pertsona fisikoa ez izatea). Beka onuradunaren gaia hau da: "¿Encuentran las mujeres obstáculos para acceder a los recursos de tratamiento de adicciones.



Análisis de la situación actual". 3. motako bekan, hemeretzi (19) eskaera jaso ziren, eta horietatik, onuradun bat (1) eta hamalau (14) ordezeko izendatu ziren, eta lau (4) eskaera atzera bota ziren arrazoi berarengatik (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzea). Beka onuradunaren gaia hau da: " Arquitectas (in)VISIBLES en Euskadi. La problemática que esconde esta (in)visibilización ". Bekak esleitzeko prozedura lehia-konkurrentziarena izan da, eta baremoari eta prozedurari buruz deialdian ezarritako irizpideei jarraitu zaie.

Beka bakoitzaren iraupena hamar hilabetekoa da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Ikerlanak entregatzeko epea 2020ko maiatzean amaituko da. Beken indarraldian, bilera batzuk egin dira (2019ko azaroan, 2020ko otsailean) mota bakoitzeko beken onuradunekin, aldi horietan egindako lanen kontrola, segimendua eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitutakoan, ikerlan amaitua analizatu eta baloratuko da, emaitzak eskuratuko dira eta baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua neurtuko dira.

2018ko deialdian hiru beka-motetan egindako ikerketa-lanen balorazioa 2019an amaitu da eta deialdian planteatutako helburuak bete dituzte, beka-mota bakoitzean jasotako eremu bakoitzean berdintasuna lortzen lagundu baitute.

Ezarritako 10 hilabeteko epean egin zen prestakuntza, eta bekadunentzat izan duen onura argi geratu da, gero izan duten destinoa ikusita: batzuetan, burutzen ari diren doktorego-tesiaren ikerketaren esparruan sartuko da bekaren babesean egindako ikerlana; beste batzuetan, antzeko beste ikerlan batzuen bidez jarraipena egingo da, eta, edozein kasutan ere, garapen profesionalaren alderdi bat izango da. Gainera, eduki horiei zabalkundea eman zaie hainbat eremu eta euskarritan argitara emanaz (Emakunderen webgunean, kongresu eta jardunaldietan...), eta Dokumentazio Zentroan gordailutu dira, zabalkunderako eta jendeak etorkizunean kontsultak egiteko, aztertutako esparru horietako ikerlanen inguruko ezagutza izate aldera.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

- Aurkeztutako eskabide kopurua: 64
- Emandako beka kopurua: 3
- Zuzeneko onuradun izan diren emakumeen eta gizonen %: %83 emakumezkoak %17 gizonezkoak



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea

2.- Araua

Ebazpena, 2018ko abenduaren 03koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena: 2018ko abenduaren 3 eta argitalpena EHAAn (2018ko abenduaren 12a)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806069e.shtml>

Emate ebazpena: 2019ko uztailaren 29 eta argitalpena EHAAn (2019ko abuztuaren 14a)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903884e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren esparruan eta Erakundearen helburuekin bat etorritik, 376.000 euro eman zitzaizkien emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei, horiek zuzenean eragin dezaten euskal gizartean emakumeek duten partaidetzan eta horien sustapenean.

Horrekin, nahitaezko zeregin bat egin zen, Emakundek programatutako jardueren osagarri; izan ere, gizartea sentsibilizatzea beharrezkoa da, funtsezko helburua lortu ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko deialdian, 146 eskaera aurkeztu ziren, eta 120ri eman zitzaizen diru-laguntza, . Gainerako 33 26ak, ukatu egin ziren:4 eskabide emakumeen eta gizonen elkarte mistoak izateagatik (1. artikulua); eskaera 1 entitate onuraduna ez izateagatik (3.1 artikulua), eskaera 1 emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentzio-jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko laguntza lerrora bideratua (4.3 artikulua) eta eskabide 20 uko egin dute.

Datu hauen gainean, beharrezkoa da 2018an deialdi honen erabakiak elkarteek diruz laguntzeko duten proiektu bakoitzerako eskaera aipatzen duela azaltzea. Elkarte bakoitzak hiru proiektuko maximoa eska dezake.

Prozesua amaitu gabe dagoela, % 75a ordaindu da, 282.000 euro, eta, justifikazio-memoria aurkezteko epea 2020ko martxoaren 01ean amaitzen denez, emandako diru-laguntza guztia justifikatu ondoren ordainduko da gainerako % 25a, hau da, 94.000 euro.



Diru laguntza jaso duten elkarteak 40.840 bazkide dituzte, gutxi gorabehera. EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren helburuak garatzen uzten duten jarduerak egiteko diru-laguntzak dira.

Lortu dira aurreikusitako emaitzak, bai egindako programen kalitateari dagokionez, bai diru-laguntza horren onuradun direnen kolektiboari dagokionez. Gure balorazioaren arabera, bete da deialdi horretan aipatutako adierazlearen aurreikuspena. 2019rako memoria ekonomikoan aurreikusten zen 100etik 140ra eskabide aurkeztea. Diru-laguntza jaso dutenak 146 elkarte izan direla ikusten da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarteetara emandako diru-laguntzetako kopurua	100-140	120
Elkarteetara diruz lagundutako proiektuetako kopurua	150	189
Elkarteen gida-liburuaren gutzizkoari buruz diruz lagundutako elkarteak	%75	% 60



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko

2.- Araua

Ebazpena, 2017ko abenduaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei 2019. urtean diru laguntzak emateko deialdia arautzen da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko (EHAA, 239 zk., 2018ko abenduaren 13koa, osteguna).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, 2019. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei diru laguntzak emateko deialdia egin eta diru-laguntza horiek arautzen dira, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatatu ditzaten, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko.

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 15ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2019. urtean enpresei eta entitate pribatuei dirulaguntzak emateko eta ukatzeko dena. Dirulaguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta erakunde pribatuei diru laguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo erakunde pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta berdintasun-plan bat egiteko.

Programa honetako diru-hornidura laurogei mila eurokoa da (80.000,00).

Programak enpresak inplikatu nahi ditu, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, legez behartuta ez dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko eta, gutxienez, hogeitau ordu eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sentsibilizazioa/prestakuntza emateko. Orobat, diru laguntza jasotzen duten enpresek konpromisoa sinatzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakunde bihurtzeko, hau da, enpresetan dauden desberdintasunak



gutxitzeko jarduera jarraituak egiteko konpromisoa, besteak beste: aukera-berdintasuna sustatzea langileak kontratatzerakoan eta langileen sustapen eta prestakuntzan; bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko neurriak ezartzea; sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurrea hartzea; enpresaren produktuetan berdintasuna sartzea, eta abar.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

21 entitate aurkeztu ziren eta, deialdiaren irizpideak aplikatu eta gero, 13ri onartu zitzaizen diru laguntza (aurrekontu-kreditua agortu zen) eta 5 geratu ziren ordezkioak eta hiru deialditik kanpo baldintzak ez betetzeagatik.

Diru laguntza esleitu zitzaizen erakundeen artean, 2 Arabakoak ziren, 8 Gipuzkoakoak, eta 3 Bizkaikoak. Jarduera-eremuari dagokionez: 5 zerbitzu-enpresak, esku-hartze sozialeko 3 elkarte, garraioko 1 eta kultura eta hizkuntzako 4. Guztira, erakunde horietako bakoitzean egindako diagnostikoak eta planak 538 gizoni eta 419 emakumeri egin die mesede zuzenean, eta milaka gehiagori zeharka.

Diruz lagundutako erakundeek jende askori ematen die zerbitzua, eta pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak inpaktu biderkatzaile handia izango duela etorkizunean, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak lortzeko orduan dauden desorekak murrizteari dagokionez.

Ikusienez, kontratazioaren alorreko berdintasunaren aldeko klausulak funtsezko tresnak dira enpresak berdintasunera erakartzeko. Aurreko urteko joerari eutsi zaio: alde batetik, entitateek kontsulta gehiago egin dituzte, aurreko prestakuntza-enpresek, bereziki. Beste alde batetik, prestakuntza arloan aritzen diren entitateen taldea egonkortu egin da diru laguntzak eskatzeko orduan. Azken urteetan, berdintasun politikak gauzatu behar direlako sentsibilizazioa igo da enpresetan talentuari eusteko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Eta horiek ere eragina izan dute diru laguntzaren igoeraren eskaria.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazle	Aurreikusita	Emaitzak
Diruz lagundutako enpresen kop	13 eta 18 artean	13 enpresa



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 4koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2019ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Diru-laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen duena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806070e.shtml>

Dirulaguntzak ematen duena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903422e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua da EAEko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei 2019. urtean emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ematea.

Deialdi honetan, lehen aldiz diagnostikoa edota berdintasunerako plana egiten duten udalerriei, koadrilei edota mankomunitateei lehentasuna ematen zaie, herri guztiek emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak garatu ditzaten. Halaber, mankomunitate, koadrila eta udalerrri-multzoek elkarturik proiektuak egiteari lehentasuna ematen zaio, politika publikoek beren ingurunean ahalmen eta oihartzun handiagoa dutelako. Berdintasunerako teknikariaren kontratua luzatzeari eta/edo zuzeneko kontratazioari ere lehentasuna emango zaio. Deialdiaren zenbatekoa hirurehun eta hirurogei mila (360.000) eurokoa izango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

51 proiektu aurkeztu ziren. Horietatik 6 ukatu ziren:

- 2 deialdiak eskaturiko puntuazioa ez lortzeagatik
- 4 udalerrriak atzera egiteagatik

37 diru-laguntza eman ziren, 34 udalerrri eta 3 mankomunitate edo koadrillei, 360.000 euroko zenbatekoagatik. Emandako diru laguntzen emaitzaren arabera:

- 19 diru-laguntza eman ziren diagnostikoak, berdintasun planak eta ebaluazioak egiteko. Horietatik:



- 3 lehenengo diagnostiko edota planak izan dira
- 16 bigarren, hirugarren edo/eta laugarren diagnostiko eta/edo berdintasunerako planak edota ebaluazioak izan dira.
- 18 proiektu diagnostiko eta plan sektorialak egiteko dira. Horiek, udaletako hainbat esku-hartzetan emakume eta gizonen egoeraren ezagutza hobetzea eta beharrian konkretuetara hobeto egokitutako programak garatzea ahalbidetuko dute. Horietatik 8 izango dira indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko protokoloak ebaluatzeko, indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta indarkeria matxistaren plana egiteko.

Uko egiteak: Ez dago

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazle</u>	<u>Aurreikusita</u>	<u>Emaitzak</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	33	37
Biztanle gutxiko udalerrri onuradun kopurua	30	20 (*)

(*) 3 mankomunitate edota kuadrilla (biztanleria gutxiko 22 herri dauelarik) eta 17 udalerrri, biztanleria gutxikoak



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak 2019. urtean emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat

2.- Araua

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2019an diru-laguntzak emateko deialdia egin eta diru-laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806100e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ilido horretan, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerez sentsibilizatzeko eta halakoak prebenitzeko abian jarritako programak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, erakunde publikoek ez ezik, irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek ere gauzatzen dituzte. Hortaz, egoki da indarkeria horri buruz sentsibilizatzeko eta hura prebenitzeko proiektuak, programak, ekintzak edo estrategiak abiarazten dituzten erakundeei laguntzea.

2019eko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- a. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
- b. Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
- c. Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
- d. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
- e. Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
- f. Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rola aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
- g. Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
- h. Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistematik onena denez gero.
- i. Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.



- j. Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
- k. Bizitza pertsonalean, gizartearen, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
- l. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.
- m. Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
- n. Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
- o. Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezzen lortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartearen

Diru-laguntza hauetara, 240.000 € bideratu dira.

Deialdi honetan, proiektu bakoitzeko gehienezko zenbatekoa 12.000 euro izango dira; erakunde bakoitzari bi proiektu lagunduko zaizkio gehienez ere —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko.

2019. urtean 88 proiektu aurkeztu dira eta hauetatik 42k jaso dute diru laguntza.

Proiektuak Ebaluazio Batzordeak baloratu ditu, deialdi honen helburuak eta aurreikusitako gizarte-eragina kontuan hartuta.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako diru-laguntzen kopurua	40	42